

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3059

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 23koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendaria-rena. Honen bidez, 2017-2018 ikasturtean zehar zerbitzuak bete dituzten bitarteko funtzionarioei oporraldiaren ordainketa aintzatesten zaie.

Langileak Kudeatzeko zuzendaritza honek urtero, hain zuzen ere, uztailean, dituen eskumetan oinarrituta, Hezkuntza Sailarentzat ikasturtean zehar zerbitzuak bete dituzten bitarteko irakasleen oporraldiaren likidazioa egiten du.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuarekin bat etorriz, ikasturte batean 165 egunetan edo gehiagotan lan egin duten bitarteko funtzionarioek uztail eta abuztuko lansariak jasoko dituzte. Halaber, aldi horiei dagozkien puntuak ere jasoko dituzte, irakaskuntzako ordezkogaien zerrendaren baremoaren ondorioetarako. Eskubide horiek, 165 egun baino gutxiago lan egin duten langileei ere aintzatesten zaizkie, bete dituzten zerbitzuen proportzioan, kidegoa, maila eta jarduna kontuan hartuz, Oporraldien Ordainketa Instrukzioak esaten duenaren arabera.

Hau da ebazpen honen helburua: bitarteko funtzionarioek 2017-2018 ikasturtean zehar sinatu dituzten izendapen desberdinen ondorioz sortu diren eskubideen berri horiei ematea. Era berean, jakinaren gainean jarri nahi da, aintzatespen horiek, langile batzuen kasuan, eginbeharren betetzea eraman dezakeela.

Aurrez esandakoa aintzat hartuz eta eman zaizkidan eskumenen arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aintzatestea, 2017-2018 ikasturtean 165 egun edo gehiago lan egin duten bitarteko funtzionarioei, uztaileko eta abuztuko lansarien ordainketen eskubidea.

Bigarrena.– Aintzatestea, 2017-2018 ikasturtean 165 egun baino gutxiago lan egin duten bitarteko funtzionarioei dagozkien lansarien ordainketen eskubidea, bete dituzten zerbitzuen proportzioan, kidegoa, maila eta jarduna kontuan hartuz, Oporraldien Ordainketa Instrukzio Arautzailleak esaten duenaren arabera.

Hirugarrena.– Aintzatestea aurreko bi kasuetan, irakaskuntzako ordezkapenentarako izangaien zerrendaren baremoaren ondorioetarako epe horiei dagozkien puntuak.

Laugarrena.– Kasu guztietan, oporraldiak izendapen eta kargu-uzte berri baterako eskubidea sortzen du.

Bosgarrena.– Interesdunei jakinaraztea, oporraldiko izendapenak Gizarte-Segurantzaren alta eragiten duela, oporraldi horrek beti ere izendapen eta kargu-uzte berri bat sortzen baitu, eta, horregatik, langabeziaren prestazioak jasotzen ari direnek, dagokion erakundera joan beharko dutela, Gizarte-Segurantzaren altan dagoen bitartean, prestazioaren ordainketa mozteko.

Seigarrena.– Interesdunei jakinaraztea, era berean, ekainaren 30a baino lehen izendapena amaitu bazaie eta udako ordainketa hasten denean, izendapena eta Gizarte Segurantzaren altan ematea eragozten dituen aldi baterako ezintasun-, amatasun-, harrera-, adopzio- edo aitasun-egoeran badaude, uztailaren 1a baino lehen egoera hori dagokion lurralde-ordezkaritzan justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dituztela.

Era berean, oporraldiko ordainketa hasten den egunean indarrean dagoen lan-kontratua duteinei ezin izango zaie izendapenik egin, baldin eta bi lanen bateragarritasuna onartuta ez badute.

Kasu horietan ofizioz egingo da dagokion oporretako likidazioa, izendapena, Gizarte Segurantzako altarekin, formalizatu ezin dela kontuan hartuta. Betiere, uztailaren 1a baino lehen ez badu eskatu lehen aipatutako izendapena eragozten zuen egoera bukatu ondoren udako izendapena izan nahi duela.

Azkenengo aukera hori hautatu ahal izateko, interesdunak konpromezua hartu beharko du dagokion lurralde-ordezkaritzan jakinarazteko, modu justifikatuan, izendapena eragotzi zuen egoera bukatu dela. Jakinarazpena komunikatzen den egunetik aurrera eguneratuko zaio dagokion udako ordainketa.

Zazpigarrena.– Uztail eta abuzturako, edo kasu bakoitzean behar den aldirako, izendatuak izateko eskubidea duten pertsonak izango dute eskubide horri uko egiteko aukera. Uko egite hori idatziz, eta uztailaren 1a baino lehenago, eskatu beharko da eta data horren ondoren ez dira uko egiteak onartuko. Kasu horietan lanean emandako egunen arabera dagozkion oporren likidazioa egingo da.

Zortzigarrena.– Sartu EHAAren ebazpen hau, eta, era berean, argitaratu Sailaren web-orrian.

ERREKURTSOAK

Interesdunak, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango dio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 23a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.